

EMAKUMEAREN IRUDIA EUSKAL HAUR LITERATURA MODERNOAN. 1980KO HAMARKADAKO ETA GAUR EGUNGO EGOERA

Tesiaren egilea: Eneko Fernandez Artigas

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Saila

Tesi-zuzendaria: Arantzasu Rodríguez Fernández eta Xabier Etxaniz Erle

Tesiaren laburpena:

Haur eta gazteei zuzendutako euskal literaturan, umeei emakume eta gizon izateko eredu desberdinak topatuko dituzte liburueta ilustrazioen, hitzen, pertsonaien eta ekintzen bitartez. Horregatik, ikerketa-lan honek, genero-ikuspegitik sexismoa detektatzeko, euskal haur eta gazte literatura modernoan emakumearen eta gizonaren irudiaren eboluzioa aztertzea du xede.

Helburu hori lortzeko 144 liburuko corpusa hiru multzotan banatu da: 1980ko hamarkadako 70 liburu, 2013an argitaratutako 55 eta 2009tik 2014ra sarituak izan diren 19 liburu. Ondoren, liburu horiek aztertzeko eta datuak biltzeko genero-ikuspegian oinarrituta dagoen genero-analisirako fitxarekin corpusa osatzen duten liburuen irakurketa analitiko egin da.

Datuek erakusten dute berdintasunerantz eboluzioa egon dela. Hala ere, oraindik emakumearen eta gizonaren irudiaren artean desberdintasun nabarmenak daude; emakumeen presentzia gero eta ugariagoa eta anitzagoa da, baina, esate baterako, etxeko ardurak (zaintza familiarak eta etxeko lanak) bien betebeharrak diren arren, nagusiki emakumeei loturik agertzen dira. Gainera, orokorrean emakume ederraren eta gizon indartsuaren estereotipoarekin oraindik ez da apurtu euskal letretan. Bestalde, emakumearen irudia gero eta aktiboagoa, ausartagoa eta jakintsuagoa bilakatu da. Halaber, datuek ere adierazten dute espazio publiko eta pribatuaren banaketa nahiko parekidea dela. Lanbideak ikertzerakoan, aurrera egin den arren, gabezia ikusten da liburuetan, orokorrean, gizonen lan anitzagoak eta garrantzitsuagoak betetzen dituztelako.